

5 FRANTZIA KORTEKOA

Letra: Herrikoia
Musika: Xabier Zabala

Neu etor nintzenian
Frantziko parterik,
ama topa nenduan
sueten bakarrik.

- Zer eiten dozu, ama,
zeuk horren tristerik?
- Nobedade barriek
entzun doz hemen nik.
- Zer entzun dozu, ama,
amatxo neuria?
- Ezkondu ein zarela
joan da famia.

- Frantsesa ala ingelesa
da zeure emaztia?
- Frantziako parteko
alaba gaztia.
- Ez dot behar frantsesik,
hain gitxi erranik.
Nahiko nago erranik
sueten bakarrik.
- Zer eingo dotset, ama,
amatxu neurea?
- Hartu puñela eta
hil, ene semea.

Zeu ez bazara kapaz,
abisa anajea.

Anajeatan bere
disimulantea.
- Baja zaitez, koinata,
mando horren ganerik.
Hamentxe jon behar dozu
mundu honetarik.
- Hamalau mando datoz
urreaz kargaurik.
Hartuixuz haik eta
itxi neizu bizirik.

Abisa abadea
konfesau eiteko,
sakramentu santuak
errezibitako.
- Elexe urrun-urrun
abade urrunago.
Hara ta hona ibilteko
asti gitxi dago.
- Zazpi izera deukuaz
odolaz kargaurik,
zortzigarrenak naro
mundu honetarik. (bis)

**HARAN HANDIAREN DOINUAK
ERANDIOKO KANTUTEGIA**